



HERRITARREN PARTAIDETZAKO FORU BATZORDEA / COMISIÓN FORAL DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA

AKTA

HELBURUA: 2019-2023ko Partaidetza Programaren proposamena aurkeztea
/Presentación de la propuesta de Programa de Participación 2019-2023

NOIZ: 2020ko ekainaren 2an

NON: Jauregiko 3.2. gelan

ORDUA: 9:30 – 11:00

KIDEAK:

Lehendaria:

- Joseba Muxika – aurrez aurre

Batzordekideak:

- M^a Jose Telleria (Joseba Muxikari eman dio ordezkartza eta botoa)
- Goizeder Manotas (Joseba Muxikari eman dio ordezkartza eta botoa)
- Jon Ander Azpiroz - presentzialki
- Miguel Angel Crespo - birtualki
- José Enrique Corchón - birtualki
- Mikel Uribetxebarria - birtualki
- Txaro Rodrigo - aurrez aurre
- Mónica Pedreira – (Miguel Angel Crespori eman dio ordezkartza eta botoa)
- Sebastian Zurutuza (Joseba Muxikari eman dio ordezkartza eta botoa)

Idazkaria: Itziar Calvo - aurrez aurre

Joseba Muxikak ongi etorria eman die kideei eta bereziki kide berriei, eta ondoren, bileraren **helburuak** azaldu ditu:

- 1) 2019-2023ko Partaidetzazko programaren proposamena aurkeztea.
- 2) Prozesuari irekiera ematea.

Joseba Muxikak, aurkezpenarekin hasi baino lehen, komentatu du Partaidetza programa **martxoaren bukaeran** aurkeztu nahi ziola Foru batzordeari, baina COVID-19 zela eta, atzeratu egin zen prozesua.

Josebak aurkeztu du 2019-2023ko Partaidetzazko programa, eta horretarako, programa pantailan partekatu du denek ikus dezaten.



Programaren egitura:

- 1) Abiapuntua
- 2) Helburuak
- 3) Egitura
- 4) Gutxi gorabeherako egutegia
- 5) Balantzea
- 6) Jarraitutasuna
- 7) Hartzaileak

- **Programaren helburu estrategikoak:**

Herritarrekin harreman irekia finkatzea, eta parte hartze nahiz komunikazioko bide berriak irekitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak prestatu eta ebaluatzeko garaian herritarren parte hartzea ohikotasunez txertatuz.

Helburu estrategiko hori **helburu operatibo** hauen bidez zabalduko da:

- Gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredua garatzea eta sustatzea.
- Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta egikaritzea.
- Parte hartzeko bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortzea.
- Herritarren parte hartzea bermatu eta sustatzeko behar diren organo, egitura eta arauak ezarri eta sustatzea.

- **Programaren egitura:**

- 4 ildo estrategiko
- 12 eremu
- 49 ekintza

- **Ildo estrategikoak:**

- **1. ILDO ESTRATEGIKOA. Herritarren partaidetzako estrategiak eta mekanismoak.** Lankidetzako gobernantza irekiko eredua garatu eta sustatzea.
- **2. ILDO ESTRATEGIKOA. Ezagutzaren kudeaketa eta dibulgazioa.** Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatzea.
- **3. ILDO ESTRATEGIKOA. Berrikuntza digitala.** Tresna eta ekipamendu digitalak sortzea, partaidetzako bideak zabaltzeko.
- **4. ILDO ESTRATEGIKOA. Organoak, egiturak eta araudiak.** Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta sustatzea.
- **EUSKARRI TRESNAK**



- 49 ekintzak ere aipatu ditu
- Balizko egutegi bat.

Behin aurkezpena egin eta gero, Josebak kideen hitzaren txanda ireki du komentarioak, galderak edota iradokizunak jasotzeko.

Iruzkin hauek planteatu dituzte:

- José Enrique Corchonek galdetu du ea zerbait aurreikusita dagoen datorren urteko Aurrekontu irekien proiekturako.
- Joseba Muxikak zera erantzun dio:
 - Alde batetik, Partaidetzazko foru arauak behartzen duela urtero ateratzea, eta
 - Bestetik, gogoeta bat egiten ari direla Gobernantza diputatuarekin batera, baina oraindik ez dagoela ezer zehaztuta.
- Corchonek aipatu du datorren urtera begira “emergentziazko aurrekontua” izango dela, eta horren ondorioz, “B plana” prestatu beharko dela salbuespena egiteko, dirurik ez delako egongo. Batzar Nagusiei planteatu egin beharko zaie.
- Bestalde, adierazi du, agian, “pedagogia” erabili beharko dugula gizarteak ondo ulertzeko zein den Aldundiaren finantziazio sistema, politika publiko orokorrak zeintzuk diren, baina ez du egokia ikusten herritarrei galdetzea “zer gustatuko litzaiekeen”.
- Josebak erantzun du, kontuan hartuko duela esandakoa eta lanketa bat egin beharko dela.
- Miguel Angel Crespok aipatu du bere departamentuko proiektuak joango direla txertatzen Partaidetza Programa barruan.

Bukatzeko, Partaidetzazko Foru batzordeak oniritzia eman dio hasiera 2019-2023 Partaidetza Programaren prozesuari.

Donostian, 2020ko ekainaren 2an

Itziar Calvo Garmendia

Partaidetzazko Foru batzordearen idazkaria